

MD12010	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

Lan taldearen memoria

Lan taldea: **KONPETENTZIAK LAN TALDEA**

ikasturtea: **2020-2021**

1. Sarrera

Covid 19 egoerak eraginda, ikasturtearen lehen hiruhilabeteen, IKT-ren inguruko formazioa eman behar izan dugu aurreikusten zelako online irakaskuntza egin beharko zela ikasturtean zehar. Hori dela eta beste gaietan urtariletik ekaina bitartean aritu gara.

Talde orokorra gutxitan bildu gara eskuhartze kopurua oso handia ez zelako, eta bestetik denbora izugarria hartu digulako IKT formazioak. Hala ere azpitaldeetan askotan bildu gara esku-hartzeak eta PAM berria prestatzeko.

Orohar, eskuhartzeen balorazio orokorra oso ona izan da. Ikastetxeek batez ere baloratu dute praktikoa izatea eta gelan eramangarria. Hasieran ez bagenuen pentsatu ere azkenean aurrez aurreko formazioak izan dira gehienetan.

2. Taldean ekoiztutako dokumentuak

- PAM 301 eta 302-rako hainbat tresna eta baliabide gaztelerara itzuli dira ikastetxe batean gazteleraz eman behar izan delako prestakuntza.
- PAM berri bat sortu dugu. PAM 304 | Ebaluazio Hezigarria: errubrikak sortzen.
- Ebaluazio Hezigarria Site-a osatu dugu azken PAM-aren baliabideak txertatuz.
- Taldearen Drive-a antolatu dugu eta jabetza guztiak taldeari eman dizkiegu.

3. Taldekideek ikastetxeetan egin diren esku-hartze nabarmenenak

- CPEIPS PAULA MONTAL ESCOLAPIAS HLBHIP
Bi aholkulari egon dira ikastetxean bi etapei erantzuna emateko (LH-n PAM 301 eta BH-n PAM 302) . Oso arrakastatsuak izan dira formazioak.
- CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI
PAM 303 HH LH-ko klaustro osoari eman zaio. Oso ondo baloratua izan da eta dagoeneko portfolio jarri dute martxan. Gida bat idatzi dute hurrengo ikasturtean inplementatzen jarraitzeko.
- IES ZARAOBE BHI
Klaustroko nahi izan duten irakasleek parte hartu dute eta motibatuta egon dira. Oso ondo baloratu dute.
- IES LAUDIO BHI
PAM 302-ren jarraipena egin zaie eta horretarako esku-hartze puntual bat egin da errubrikak konpetentzietan oinarrituta nola sortu.

4. Prestakuntza ekintzak: taldekideek emandako ikastaro eta mintegiak

- KONPETENTZIAK EBALUATUZ: EBALUAZIO HEZIGARRIA MINTEGIA
Parte-hartzaileak oso aktiboak izan dira eta eskatutakoa baino askoz gehiago eman dute (ebidentzia ugari aurkeztu dizkigute). Jarrera oso ona izan da. Eskertu digute aurrez aurre egitea eta baita jarraitu ahal izatea online konfinatuta egon direnean.



Berritzeguneak
Vitoria-Gasteiz



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD12010

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

- KOMPETENTZIAK EBALUATUZ: ERRUBRIKAK SORTZEN (online)

Moodle plataformaren bitartez burutu da eta esperientzia berria izanez, oso ona izan da. Parte-hartzaileen %90-ek bukatu dute ikastaroa eta ziurtagiria jaso dute.

5. Datorren ikasturterako aurreikusten diren zereginak

Momentu honetan, Berritzeguneen eraldaketa dela eta ez daukagu jarraibiderik eta ezinezkoa zaigu aurreikuspenak zerrendatzea. Hala ere, jada ikastetxe batek eskatu du aurten egindako formazioaren jarraipena izatea. Mintegi eta ikastaroen eskaintza ere ezin dugu aurreikusi zeintzuk izango diren jarraibideak jakin arte.